

Hitz totemikoak hizkuntza politika alferra estaltzeko



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
ZINEGOTZIA

Lehenik “positibo” izan zen. Beltz ikusten omen genuen guztia; antza, ez ginen behar beste baikor aritzen, ez baikenien aitortzen erakundeei euskararen ezagutza eta erabilera handitzen egindako ahalegina, eta “agonistak” deitu zigun urtetan Eusko Jaurlaritzan hizkuntza politikaren ardura izan zuenak; Donostiako Udaleko politikari batek ere euskalgintza agonikoa zela aipatu izan zuen inoiz. Nola diren gauzak, biek ala biek alderdi berean abiatu zuten boterea eskuratzeko bidea, baina sigla ezberdinetan iritsi ziren gerora urte luzez partekatuko zuten agintera.

Kontu zaharrak dira horiek, duela hoge urte hasi eta, azkenekoz, duela hamar urte entzundakoak, baina hara non, iaz, horien gobernu koalizio bereko zinegotzi gazte batek ihardetsi zidan, Donostiako Udal Gobernu euskararen erabileran erakusten ari zen akatsak onartuta ere, erreparatzeko “beraien kudeaketaren alderdi positiboer”. Hara, hitz totemikoa berriz bueltan! Tira, inork zutabe hauek irakurtzeko tartea hartu badu, ohartuko zen izan dela eta badela kezkarako gairik, eta horregatik galdetu nion zer zuten po-

Berriki beste hitz potolo bat erabili du Udal Gobernuaren kudeaketa zurrizko: “egonkortzea”; euskararen ezagutza eta erabilera hazten joan omen dira urteotan, eta orain egonkortze fasean omen gaudenez, ulergarriak dira “akats” horiek

sitibotik hainbestetan salatu izan ditudan atzera urratsek eta urraketek; txintik ere ez zidan erantzun.

Bada, berriki beste hitz potolo bat erabili du Udal Gobernuaren kudeaketa zurrizko: “egonkortzea”; euskararen ezagutza eta erabilera hazten joan omen dira urteotan, eta orain egonkortze fasean omen gaudenez, ulergarriak dira “akats” horiek. Ez omen da behar guk proposatutako jarraipen sistematikorik, eta esker-tzen ditu gure taldeak eta kalean geratzen dieten herritarrek egindako ohartarazpenak, hobetzen laguntzen baitiete; beraiek ere hiritar gisa kalean dabiltzala ikusten omen dituzte akatsak.

Beraz, hauxe da euskaltzaleok dugun pertzeptzio ezkorra, sarriegi enpirikoki frogatua, ukatzeko formula: larritasuna arinduko duen eta lasaitasuna hedatuko duen hitz totemikoaz janztea. Marketin hutsa. Niri horrek aditzera ematen didana ez da batere positiboa, aitzitik, utzikeria, ezaxola, eta okerragoa dena, euskararen erabilera bigarren mailan uzten duen jarduteko modu kontzientea erakusten dizkit. Hori bai, joera hori egonkortuta ikusten dut PNV eta PSEko agintarien artean. ●



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari
Nafarroa hego eta erdialdean



errigora

errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Herriak
egiten du
herria

